

Roque Méndez Villada eta Jose Luis Mondragon Elorza. Enboscada batean erailak.

1974ko maiatzaren 20an, polizia frankistak Hondarribiko Asturiaga hondartzan egindako segada batek Roque Méndez Villada eta Jose Luis Mondragón Elorza hil zituen. Ipar Euskal Herriatik zeozten bi gazte hauek, Donibane Loitzunetik, txalupa bidez. José Luis Arrondo "Cocoliso"-rekin batera joan ziren, poliziaren isilmandatari gisa identifikatu zena.

Garaiko justizia militarreko aparatuak 66/1974 auzia bideratu zuen, egitateak faltsutu eta poliziaren exekuzioaren erantzunkizuna bi gazteei egozteko. Horrela, egileen zigorgabetasuna bermatu zuten.

Mendez Villadak Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiar gobernuaren errekonozimendua jaso du, adieraziz bere aurka egindako epaiketa legez kanpoko eta ez-zilegia dela. Aldi berean, bere aurkako kondena desueza dela ebatzi da. Mondragon Elorzaren familiak ez zuen Mendez Villadarenarekin batera errekonozimendu eskaera egin, baina orain egin dute, eta aitortza eta erreparazioa lortzeko itxarote zerrendan daude.

Aitorpen administratibo hauek nabarmentzen dute biktima horiek pairatzen duten justizia eza. Hain zuzen, instantzia judizialeetatik hiltzaile frankistak estaltzen jarraitzen dela.

Krimen hauek, Memoria Demokratikoaren 20/2022 legearen arabera, ez dira preskribatzen eta ezin dira amnistiatu. Hala ere, bunker negazionista judizial baten aurrean gaude, ez dituen gizateria izutzen dituen krimenak ikertzen, auzipetzen, epaitzen, eta hala badagokio, zigortzen.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak Gerra Zibilean eta diktadura frankistan zehar izandako giza eskubideen urraketa larriei aministia eta preskripzioa ez aplikatzea bermatzeko beharrezkoaz diren legegintza-neurri guztiak hartzeko eskatu du.

Hori horrela, Giza Eskubideen Behatokiak, nazio batuen estandar eta printzipioei jarraituz, kereila kriminal bat auzikatu zuen, biktimaro hauen aurka: exekuzioa burutu zuten polizia eta guarida zibilen aurka. Horretaz gain, José Luis Arrondo "Cocoliso" infiltratuaren identitatea eta non dagoen ikertu behar dela eskatzen degu ere.